



Gipuzkoaren sustapen ekonomikoa eskualde ikuspuntuaren ekarpenaren bidez bultzatzeko programa.

Urtea :2018 | Ekonomia Sustapena

DESKRIBAPENA

Eskualde arloko estrategiak, gaitasunak eta dinamikak lankidetzan sustatzea eta, horrela, sustapen ekonomikoaren bidez, lurralde, gizarte, ekonomia eta ingurumenari lotuta kohesio handiago bat eratzen laguntzea

ENTITATE ONURADUNAK

- Gipuzkoako tokiko garapeneko eskualdeko agentziak, beren eskualdean garapen agentziarik ez duten Gipuzkoako tokiko erakundeek, mankomunitateek eta udalek eratuak.
- Entitate onuradunen izaera, nortasun juridikorik izan gabe ere diru laguntza emateko arrazoia diren proiektuak, jarduerak edo portaerak burutu ditzaketen edo diru laguntza jasotzeko egoeran dauden aurreko atalean aipatu diren entitateen, elkarte publiko edo pribatueta zabaltzen da.

DIRU-LAGUNTZAREN XEDE DIREN JARDUERAK

Igo ERANSKINA: Abantaila lehiakorak eraikitzea eta garatzera bideratutako lurraldearen eraldaketa sustatzea

Diru laguntza jaso ahal izango dute identifikazio, sortze, sentsibilizazio, kontzientziazio, diseinu eta dinamizazio proiektuak garatzeko jarduerak, honako arloetan banatuta:

- Enpresek edo enpresa ingurune eragileek osatutako lankidetzak sareak.
- Ahalmenak, gaitasunak, eta sektoreko eta/edo eskualdeko balio kateak, baita horietan oinarritutako aukera nitxoak ere.
- Aukera ematen duten sektoreak eta sektore helduen birformulazioa.
- Sektore arteko hibridazioa.
- Ekonomia zirkularra, industria sortzailea, bio-zientziak-osasuna, zibersegurtasuna, eta negozio aukerak zahartzearen arloan
- Tresnak eta dinamikak hedatzea enpresen lehiakortasuna eta iraunkortasuna handitzeko.

III. ERANSKINA: Lankidetzak inguruneak sustatzea

Diru laguntza jaso ahal izango duten jarduerak diseinu eta dinamizazio proiektuak izango dira, interes partekatutako izanik proiektu zehatz batzuen inguruan lankidetzak bat hasi nahi duten ekonomia eta enpresa eragileen artean lankidetzak taldeak osatzeko.

IV. ERANSKINA: Kalitatezko enplegua sustatzea

Diru laguntza jaso ahal duten jarduerak kalitatezko enplegua gehitzeko dinamika endogenoak garatuko dituzten proiektuak izango dira.



DIRUZ LAGUNDU DAITEZKEEN KOSTUAK

Diruz lagungarriak izango dira erakunde eskatzaileak aurkezten duen aurrekontu banakatu eta xehatuan jasotako kostuak, jardueraren garapenari zalantzarik gabe lotuta daudenean.

- Barruko langileen kostuetan gehieneko kostu hautagarria 35 €/orduko izango da.
- Kanpoko langileen kostuak hautagarriak izango dira, 69,29 €/orduko gehienez.

II. eranskinean aipatzen diren proiektuen kasuan, barruko langileen gehieneko kostu hautagarria 20.000,00 euro izango da proiektuak banaka aurkezten badira, eta 30.000,00 eurokoa, berriz, lankidetzan aurkezten badira.

III. eranskinean aipatzen diren proiektuen kasuan, kostu hautagarriak barruko langileen kostuak izango dira bakarrik. Gehieneko kostu hautagarria eragile ekonomiko eta enpresa taldeko 5.000 eurokoa izango da.

DIRU-LAGUNTZEN ZENBATEKOA

Diru laguntzak kostu hautagarrien % 100 izango dira, barruko langileen kostuaren kasuan salbu, horietan %95 izango baitira.

II. eranskinaren proiektuen kasuan, proiektu bakoitzeko gehieneko laguntza 40.000,00 eurokoa izango da proiektua banaka aurkezten bada, eta 60.000,00 eurokoa, berriz, lankidetzan aurkezten bada. Muga horiek handitu egingo dira dagokion kopuruan BEZa ezin bada berreskuratu.

IV. eranskinaren proiektuen kasuan, entitateko gehieneko diru laguntza 20.000,00 eurokoa izango da.

EMATEKO PROZEURA

Lehiaketa bidezkoa, deialdi eta hautapen prozedura bakar baten bitartez.

BATERAGARRITASUNA ALA BATERAEZINTASUNA

Diru laguntza hauek ez dira bateragarriak beste edozein administrazio edo erakunde publiko nahiz pribatuk, izan estatalak, izan Europar Batasuneko edo izan nazioartekoak, eman lezakeen helburu bereko subentzio, laguntza, diru sarrera edo baliabiderekina.

BETETZEKO EPEAK

- Eskaerak aurkezteko epea: 2018ko ekainaren 5ean, goizeko 12:00etan amaituko da.
- Jarduerak hasteko epea: diru laguntza eskatu ondoren hasiko dira, urte naturalaren barruan.
- Proiektuen exekuzio data:
 - II. eranskinaren 3. oinarrian aurreikusitako jardueren kasuan, 2019ko ekainaren 28an.
 - III. eta IV. eranskinen 3. oinarrian aurreikusitako jardueren kasuan, 2018ko azaroaren 30ean.



- Proiektuak justifikatzeko data:
 - II. eranskinaren 3. oinarrian aurreikusitako jardueren kasuan, 2019ko ekainaren 28an.
 - III. eta IV. eranskinen 3. oinarrian aurreikusitako jardueren kasuan, 2018ko azaroaren 30ean.

ARAUDI APLIKAGARRIA

[Gipuzkoaren sustapen ekonomikoa eskualde ikuspuntuaren ekarpenaren bidez bultzatzeko programa](#)

ESKAERA EGITEKO URRATSAK

- Informazioa eta dokumentuak
<https://www.gipuzkoa.eus/eu/web/ekonomia/programak-eta-laguntzak/lehiakortasuna/eskualdeak>
- Diru-laguntzak kudeatzeko aplikatiboa
<http://sustapena.gipuzkoa.eus/kudeaketa>

EDOZEIN ZALANTZA IZANEZ GERO, KONTSULTATU

JAKINTZA ETA ENPRESA JARDUERA SUSTAPENERAKO ZERBITZUA

- Kudeaketa administratiboa: 943.112227
- Kudeaketa teknikoa: 943.112217

sustapena.eraldaketa@gipuzkoa.eus